

*Paulo Agirre baltzategik Manex ezagutu  
zuen Kristau Komunitate eta "Eliza  
Berri" bati buruzko urratsetan.*

## Ezperantzak mundu berri bat erdiko duenean... Sinesten dut

*Paulo Agirrebaltzategi*

Testuinguru oso konkretuan ezagutu nuen nik bereziki Manex : Donapaleuko eta Jakin frantziskotar anaiarteko harremanetan, alegia. Elkarrekin egindako bilera anitzek hiru interes nagusi izan zituzten :

- a) Nola izan fraide frantziskotar Euskal Herrian ;
- b) Frantziskotar euskaldun ginen aldetik, nola lotu geure Herriarekiko erantzukizunari ;
- c) Nola bateratu Ipar Euskal Herriko eta Hegoaldeko frantzziskotarron lana eta harremanak.

Bilkura anitzegin genuen bi anaiarteek, bai Donapaleun eta bai Donostian (edota Tolosan eta Errenterian). Izan nuen, ordea, beste bi aldetako harremanik ere berarekin : Iparraldeko *Fededunak* elkartean, batetik, eta Euskal Herriko erlijiosoen batzarrean, bestetik.

Manexi buruzko ene lekukotasuna eman aitzinean, bestelako aitorpen zabalago bat eginez hasi nahi nuke : Ipar Euskal Herriko hiru gizonok izan dute neregana eragin berezia, nere bizitzan kristauaren esperantza eta Euskal Herri «hautsiaren» esperantza helburu berean batzean. Hiru gizonok dira : Xabier Diharce «Iratzeder», Klaudio Harluxet eta Manex Erdozaintzi. Gainera hirurak guztiz elkartuak ikusten ditut nere aldetik : hirurak helburu bati buruz, bakoitza bere lekutik, Belokeko monastegitik bat Xabier, Donapaleuko anaiartetik Manex, Bordaleko eta Baionako lan profesioaletik Klaudio...

Zilegi bekit Manexekin batera beste bi lagunok ere gogoratzea : Klaudio, duela hilabete batzuk hila ; Xabier bizi-bizirik zorionez Beloken. Hirurontzako lekukotasuna -eta hiruenganako esker onezko aitorpena- izan nahi du Manexi buruzkoak. Nik neuk neurekiko hiru lagunak batean ikusteaz gain, badakit Manexek harreman hertsia izan zuela bai Xabierrekin eta bai Klaudioarekin : batez ere kristau-esperantzatik Euskal Herriarekiko erantzukizuna eta Euskal Herriarekiko erantzukizunetik kristau-esperantza bizi nahiak elkartu zituen hirurak ; horretxek kide izan nau nolabait horiekin ni neu ere. Nere aldetik esan dezake hirurak izan ditudala eredu, bakoitza era ezberdinez. Aitortu beharko nuke, beraz, hiru lagunok eta besterik ere gogoan izanik, Iparraldetik argitu izan zaiola Hegoaldeko honi bere bizitzako aukera nagusi batzutarako ipar izarra.

Nere aldetik, Iratzederri zor diodana aitortzetik hasi behar dut : ez dut inoiz jendeaurrean adierazi ; Xabierri berari ere ez diot orain arte agertu... Gaztea nintzen, Teologiako ikasle Arantzazun. Nere eskuetara iritsi zen polikopiaturik Iratzederren hitzaldi bat, berak Bordeleko ikasle euskaldunei emana. «*Au service de la vocation du Peuple Basque*» zuen titulua. -Gerora Othoizlari aldizkariaren 26. zenbakian argitaratu zuen-. Barneraino

sartu zitzaidan Xabierren gogoeta, monako euskaldunak bere Euskal Herriarekiko atxekimenduaz ikasle gazteentzako egiten zuena : hunkituta utzi ninduten beraren argudioek.

Arreta handiz jaso dut hitzaldi hura. Ezin dut utzi aipamen pare bat hona ekarri gabe : *«Chaque peuple a ses virtualités, chaque peuple a sa destinée dans l'harmonie universelle du Salut des Nations, dans la montée des collectivités humaines vers la vie totale du Monde à venir»... «Je vais donc tâcher de concrétiser, d'enserrer dans une formule, la manière dont les étudiants basques doivent vivre et servir la vocation de leur peuple. Ils doivent : se donner au peuple basque en tant que chrétiens et se donner au monde ou à Dieu en tant que basques».*

Nik ez nuen jakin luzaroan Manexek eta Iratzederrek harreman mina izan zutenik. Manex hiltzean, Otoizlari aldizkari aipatuan eman zigun Xabierrek berak harreman horien berri, *«Euskal Herri berri baten alde ari zena itzali...»* titulupean, Manexen hainbat gutunen zatiak eskainiz. Honelako batzuk idatzi zizkion Manexek Iratzederri : *«Ez dakit batere nola sortu zautan Euskal Herriaren alderako, eskual gizonaren alderako amorio suhar bat» (1956)... «Uste dut egun batez Euskal Herrian bizitzea, diozun bezala euskal saltsari gatz, argi eta biper emaiteko» (1958)... «Gogoz eta eskuz egin dezagun lan, egunero eta barna, gure jeinuaren arabera, gure sort-herriaren alde, bereziki eskual-gizon osoaren eragintzeko» (1966)... «Euskal Herri berri bat, egunetik egunera, ari da egiten» (1978).*

Manex eta bion arteko harremanean, Klaudio Harluxet ere gurutzatu zen ; esan dezadan, mahain berean gertatu ginela hirurok *Fededunak* batasunean. Gau honetan besteren batek zuzenkiago emana du Manexen lekukotasuna, *Fededunak* elkartean izandakoa. Manex zen garai hartan elkartearen eragile nagusi ; Iparraldekoak ziren horretan ziharduten guztiak ; Hegoaldeko oinarriko kristau-elkarteen berri ematera eta nere ekarpen txoa egitera

deitu ninduen Manexek. gogo onez eman nion baiezkoa. Bilkura horietan ezagutu nuen lehen aldiz Klaudio Harluxet. Bera Kanadatik etorri berria zen ; ni neu Erromatik Euskal Herriratu berria. Biok genekarren, uste dudanez, gure Herriaren alde euskararen eta euskal kulturaren sailean zerbait eman nahia ; eta, kristau izanik, Eliza barruan zegoen aurrenik euskalduntze lanik egitekorik. Klaudiok partaidetza bizia izan zuen bilkura haietan. Gerora bestelako harreman eta lankidetzarik ere burutu izan genuen elokarrekin : UZEIn, EUSENOR proiektuan... Klaudio izan dugu euskararen modernizazioari eta euskal kulturari informatikaren baliabideak aplikatzean aitzindari eta guztion gidari.

Iratzederren eta Klaudioaren bitartez agertu dut orain arte Manexen irudia ; nere aldetik eman dezakedan hitzezko lekukotasunak, Manexi buruzkoak, ez luke balio handirik ; hori baino askozaz garrantzizkoa da berak bere hitzetan eta ekintzetan eman zidan eta eman zigun bere esperantzaren lekukotasuna : nola bizi kristau-esperantza eta fraide-bizitza Euskal Herri guttituarekiko atxekimenduan eta nola bete horren askapen osoaren aldeko erantzukizun pertsonala. Guzti horri buruz elkartu ohi ginen euskal erlijioso hainbat 1970.eko hamarraldi hartan. Gehien gehienok Hegoaldekoak : baina Manex Iparraldetarra hantxe zen.

1978an zenbait egunetako hitzaldiak antolatu ziren Donostian. Manexek berea izan zuen. Bere bizitzako lekukotasuna eman zigun bertan, bere pentsaera eta gogoetakeskaintzearekin batera. *Jaunaren Deia* aldizkarian argitaratu zuten (64-65 zenb., 189-197 orr.). Hitzaldiko bost esaldi adierazgarri hona aldatu besterik ez dut egingo.

*«Zori ona gertatu zitzaidan : Euskal Herrira bidali ninduten 1959an, hain zuzen Donapaleura. Orduan ari nintzen Euskal Herria kurritzen, Iparraldetik Hegoalderaino, eta, herri honen desberdintasunetan, lotura bateratzaile batsu aurkitu nituen, hala nola hizkuntza eta historia. Emeki emeki, neure barruan*

*neraman euskal herritasuna hasi zitzaidan atzartzen, askatzen, indartzen... bideetan, herriz herri, egin lagun berriekin : kristau militante batzurekin, politiko batzurekin, kultura lantzaile batzurekin...».*

*«Ikuspegi hontan, erlijioso bizitza ezin daiteke izan ihesbide bat, gizarterako sarbide bat baizik, gizartea gure bizi eremutzat hartuz : hau izanen da gure bizitzaren, gure Berri Onaren gunea».*

*«Gugan deramagun herritasun hautsia, kolpatua, ukatua eta zapaldua deramagu».*

*«Jadanik erran dizuetan bezala, erlijioso bizitza herri konkretu hontan hezur mamitua nahi dugu ; eta hezur mamitze hau bere dimentsio osorako Ebanjeliotik atera ditzazkegun baloreekin hazia eta indartua nahi dugu».*

*«Eta erlijioso bizitzaren orokortasunak ez du galtzerik izanen, zeren geure herri ukatu eta zapalduaren bitartez munduko pobreak, gaurko pobreak, gaurko jende eta herri ukatuak, xurgatuak eta zapalduak beren justizia buru har, beren bizi nahi burrukan, beren giza burrukan juntatuko baititugu».*

Bistan da, nere Manexi buruzko lekukotasuna baino gehiago izan dela hau Xabier-Klaudio-Manexen lekukotasuna, geuri emana. Nik eman beharreko lekukotasuna haien neretzako lekukotasun bihurtu zait.

Ildo beretik, duela hamar urte, Manex hil zenean, nerebere lekukotasun txikia eman nahi izan nuen *Herria 2000-Eliza* aldizkarian -bertako lankide eree baikenunen Manex. Titulu hauxe eman nion artikulutxoari : *«Ene bihotza lehertzean... Sinesten dut !»*. Beraren *«Sinesten dut»* poesiaren oihartzun txikia nahi zuen izan.

Idazki hartako zatitxo bat ekarriko dut hona : *«Euskal Herriaren askapenean sinesten zuen. Horretarako ekinean eta borrokan ari direnek haren laguntza eta lankidetzazabalak eduki dituzte ; alor guztietan (sozialean, kulturazkoan,*

*Elizarenean, bai eta politikoan ere) hortxe egon da Manex bere hitza eta bizitza eskainiz. Herri zapaldu eta ukatu honen sufrimendua salatu du, borroka agertu du, itxaropena kantatu du, askatasuna aldarrikatu du». Eta beraren aipu poetiko batekin berretsi nere hitzak :*

Ahantzi nahi ditut etsipen kantuak  
Herri zapaldu horren intziri-nigarrak.  
Taigabe deramagun burruka gogorak  
Dakarzki berarekin hazi emankorrak...

Mespretxu zapalkuntza kalapita hauzi  
Herri ukatu baten morroi marka guzi  
Dator askatasuna, hodeiak doatzi,  
Ager gaiten dantzara bihar edo etzi !

Herri honen etorkizunarekiko esperantza kantatzen  
baitzuen etsipenik gabe berak :

Esperantzak  
gizon guzien  
izerdiaren izerdiaz  
burrukaren burrukaz  
mundu berri bat  
erdiko duenean...  
sinesten dut  
gizonaren zuzentasun betean  
gizonaren askatasun betean  
gizonaren amodio betean.